

# BALOREZKO PROPOSAMENA

---

Gure enpresak gaur egun gizartean falta den zerbitzu bat identifikatu du eta atal honetan zerbitzu horren ezaugarriak zehatz-mehatz azalduko dizkizuegu.

Historian zehar elektrizitatearen lehen erabileratik gaur egun arte, argi indarrak milaka bizitza erraztu ditu, garraioa eman digu, eguzkiak iluntasunari bidea ematen zioenean elektrizitateak argitu egiten gintuen, norbaiten bihotzak ekiteari uzten dioenean hor dago elektrizitatea arima hori berpizteko, baina, ez gara inoiz zenbat pertsonen bizitza eta hauen kalitatea elektrizitatearen bidez erraztu eta hobetu daitezken pentsatzen geratu. Arrazoi hau dela eta, LUBek elbarrientzako errepidezko txirrindu elektrikoak eskaintzen ditu.

LUB-ek diseinatuko dituen txirrinduek hiru gurpil izango dituzte, bi atzean eta bat aurrean, honela bezeroaren segurtasuna handiagoa izango da. Txirrindularia erabat etzanda joango da hankak aurreko gurpilak edukiko duen plataforma batean jarriz eta eskuak “bolantean” jarriz.



Gure enpresaren errepidezko txirrinduak ez dira mobilitate aukera bat soilik, izan ere, kirola egitean elbarrituen segurtasuna bermatzeko tresna bat dira. Hauek txip lokalizatzaile bat izango dute bizikletan eta botoi laranja sakatuz, automatikoki 112 telefonora eta probintziako emergentzia zerbitzuetara deituko du gailuak. Mezu predefinitu baten bidez, larrialdietan dagoen pertsona nor den eta non dagoen adieraziko digu.

Gure mendi zein naturarengatik oso larrituta gaude, hori dela eta txirrindu elektrikoak egitea erabaki dugu. Badakigu, elektrizitatearen generazioan zein LiPo baterien sorketan CO<sub>2</sub> zein beste elementu

kutxakor asko isurtzen direla, baina, teknologiaren aurrerapenean eta garbiagoak izango diren prozesuetan sinesten dugu eta etorkizunean gure enpresaren CO<sub>2</sub> isurketa 0 tik gertuena izatea dugu helburu.

Gure txirrinduetan energia guztia ez da baterietatik bideratzen, bateriak txirrindulariaren esfortzuarekin bat egiten du honen mugetara iristeko.

Gure helburua elbarrien segurtasun eta bisibilitate sozial zein fisikoa da, horregatik, bizikletan integratutako 9 led argiek bezeroak gauzez ikustea baimentzen dute eta disko frenoek segundu bateko biziaren galera sahiesten dute.

Bizitza errazagoa, seguruagoa eta duinagoa bermatzen dugu, elbarriak muga sozialak zein fisikoak alde batera utziz eta ahaztuz.